



ELKAREKINEZ ALIANTZA

Gizarte inklusioaren aldeko Gipuzkoaren konpromisoa

Gaur egun Gipuzkoa da, gizarte-erakundeei, erakunde publikoei eta bien arteko aliantzei esker, gizarteratze arloan aurrerapen garrantzitsuak sustatu dituen lurraldea.

Hala ere, egungo testuinguruaren ziurgabetasunak eta aurrean ditugun erronka berriek behartzen gaitu, elkarrekin lortu dugun guztian oinarrituta, Gipuzkoak gizarteratzearen alde duen konpromisoa berritzeko:

- Konpromisoa, pertsonen ongizatea bermatzeko, desberdintasunak murrizteko eta bizi-kalitatea hobetzeko.
- Zeharkako, erakunde arteko eta osoko lanarekiko konpromisoa, inplikaturako politika eta eskumen-esparru anitzen emaitzarik onena lortuko duena.
- Gizarte inklusioari buruzko ikuspegi partekatu berri baten inspirazio-iturri izango den konpromisoa, aldi berean errealitatera bideratua eta, horregatik, jarduera zehatz eta ebaluagarrietan ardaztua.
- Gure jardunbide egokiei eusteko konpromisoa, baina berrikuntzara irekita nahitaez, gehiago ez ezik, hobeto ere egiteko.
- Emakumeak eta gizonak indarguneak eta lehentasunak dituzten gizabanako gisa, eta ez soilik premiak eta gabeziak dituzten gizabanako gisa, arretaren erdigunean jarriko dituen arreta eredu batekiko konpromisoa: pertsonak lehenik.

Aliantzaren parte hartzen duten erakundeek beren gain hartzen dituzte konpromiso horiei zentzua emango dieten jarduera zehatzak; era berean, jarraipen eta ebaluazio lanetan parte hartzeko konpromisoa hartzen dute.

2022ko uztaila